

HIDROELECTRICA HARANA KONTRASTA, S.A. REN
KONTRATAZIO BATZORDEAREN AKTA

Bilbon, 2019ko urtarrilaren 25ean

Idazkariak aurretiaz egindako deialdiari jarraiki, 2019ko urtarrilaren 16ko datarekin, HIDROELECTRICA HARANA KONTRASTA, S.A. ren (HARANA-KONTRASTA) Kontratazio Batzordea bildu da, eta bertan honako kide hauek izan dira:

BATZORDEKIDEAK

Javier Marques Gonzalez jauna, EEEko zuzendari teknikoa.

Rosa Madina Romero andrea, EEEko Ekonomia-Finantzako zuzendaria.

Carlos Aguirre Arana jauna, EEEko G.B. eta Z.O. ko zuzendaria, Enrique Monasterio Beñaran jaunaren ordeaz, EEEko Garapen eta Berrikuntzako zuzendaria dena, bertaratu ezina adierazi duena.

IDAZKARIA EZ BATZORDEKIDEA

Iker Alaña Zorrilla jauna, EEEko Kontratazio Ataleko arduraduna.

Halaber, Colón jaunak bertaratu ezina adierazi du.

Monasterio jaunaren bertaratze ezina dela eta, Marques Jaunak Presidente gisa jardungo du.

Gai-zerrenda jorrazteko, honako eduki hauen arabera:

1. *2019 urteko Kontratazio Planaren proposamena onartzea, hala badagokio.*
2. *Kontratu txikien esleipenen zerrenda berrikustea eta jarraipena egitea.*
3. *Beste gai batzuk.*
4. *Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.*

1. 2019 urteko Kontratazio Planaren proposamena onartzea, hala badagokio.

Batzordekideek 2019ko Kontratazioaren Urteko Planaren proposamena aztertu eta onartu egin dute, eta kontratazio organoari bidaliko zaio ebazpen arrazoitua eman dezan 2019ko Kontratazioaren Urteko Plana onartuz, egokitzat jotzen baldin badu.

2. Kontratu txikien esleipenen zerrenda berrikustea eta jarraipena egitea.

Batzordeko kideei HARANA-KONTRASTAK esleitutako kontratu txikien zerrendaren berri eman zaie; hain zuzen ere, Kontratazio Batzordeak burutu zuen azken bileratik hona.

3. Beste gai batzuk.

Ez da beste gairik izan.


4. Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.

Bileraren akta idazteari ekin zaio eta irakurri ondoren, aho batez izan da onartua.

Bilera amaitu eta gero, akta hau sinatzeko eman zaie, eta bertan HIDROELECTRICA HARANA KONTRASTA, S.A.ren Kontratazio Batzordeko presidentek eta idazkariak izenpetu dute.



Javier Marqués González jn.
Kontratazio Batzordeko presidentea



Iker Alaña Zorrilla jn.
Kontratazio Batzordeko idazkaria